



Georgina Howard bere bizileku egin duen Iturenen. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

billanea baserrikoak nire familiakoak modukoak dira», dio esker onez.

Landa eremuan bizitzen ikasi behar izan zuen hirikumea den Howardek. Baztanen hiru urte eman ostean, Ameztian borda txiki-txiki bat erosi zuen. «Komuna ere kanpoaldean zuen, baina bertako parajeekin erabat maitemindu nintzen», dio Ameztia zapaldu zuen lehen eguna gogora ekarriz.

Bertan erditu zuen bere alaba, Marion, baina hilabete gutxira alabaren aitarengandik banandu eta bakarrik hezi behar izan du. «Pentsa, Ingalaterratik etorritako ama ezkongabe bat!», dio barre artean.

Gurean jakin du lanaren balioa izugarria dela euskal herriarren artean: «Langilea bazara, berdin dio zure koloreak, hizkuntzak, sexuak, diruak... Emakumea izatea ez da inoiz traba izan, kontrakoa esango nuke; alaba bakarrik hezi izan dut borda horretan eta denen errespetua lortu dut horrela».

Kontraste handiko bizitzari aurre egin behar izan zion Euskal Herrian, hiriko eta mendi tontorreko aldea ez baita makala. Bizilagunen laguntza hasieratik izan zuen eta orduak eman ditzake laguntza hori azaltzen. «Bizilagunek baratzeko barazkiekin goizero egiten zuten purrea eta egunero-egunero atean zintzilikatzen zuten apur bat, Marionentzat. Txiki-txikia zenean ere, lan egin beharrean nengoen eta taldeekin mendi ibilbidetan nengoe-la bizilagunek atsedean lekue-tara eramaten zidaten umeak titia har zezan», azaldu du hunkituta.

Elurra egin eta etxetik atera ezinean egon denean, autoa sakanetik behera erori zaionean

«Bizilagunek nire ametsa betetzen lagundu didate. Hasieratik onartu eta lagundu naute, erabat esku zabal gainera. Zubialdea eta Sunbillaneakoak nire familiakoak dira»

Thailandiako currya, te ingelesa ala gazta ingelesak ere moda-modan daude Ameztian, eta, edozein ezustekoren aurrean, «oh my God!» omen diote bertako baserritarrek

ala etxean arratoiak aurkitu dituen bakoitzean etorri zaizkio bizilagunak. «Zertarako nahi dugu telebista guk bizilagun ingelesa edukita?», esaten omen dute bere bizilagunek, harekin aspertzen ez diren seinale.

Haiengandik jaso duen babesa eta maitasuna izugarria izan da eta etengabe nabarmentzen du esker onez. Georgina, baina, bizilagunengan ere aztarna utzi duelakoa dago, bizilagunen ohiturengan eragina izan du eta. Iturengo etxe batean baino gehiagotan

egiten dira, adibidez, ingeles jatorriko pintxoak, Marionen eskolan probatu eta arrakasta izan dutelako. Thailandiako currya, te ingelesa ala gazta ingelesak

ere moda modan daude Ameztian, eta, edozein ezustekoren aurrean, «oh my God!» omen diote bertako baserritarrek.

Ezaugarritzen duen umore onarekin azaldu ditu Howardek anekdotok eta konbentzitututa dago bisitarien eragina dutela Malerrekako herri honen joan-etorrian ere. Idatzita dituen liburuei, www.pyreneanexperience.com blogari edo ahoz ahoko transmisioari esker ezagunak egin dira Howarden txangoak, eta, hala, Australiatik, AEBetatik, Japoniatik ala Britainia Handitik datoz turistak. Mendi ibilbideak egiteaz gainera, sekulako eskaintza kulturala prestatzen die bisitariari. «Bizilagun zaharren ahoetatik kontrabandisten istorioak entzun eta bide batez gaztelera ezagutzen dute. Euskal musika ere presente izaten da eta bisitarien maiz bukatzen dute bizilagunen baserrietan taloak egiten ala arkumetxoak jezten», azaldu digu kontent. •

oihana.llorente@gaur8.info